Orain

Itxaro Borda

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1998 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1998ko ekaina
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

ELKARREKIN EGIN BIDAIA

Eskuetan duzun liburuak, irakurle, inarrosiko zaitu. Hemen den hitza, sofrikarioz, bakardadez eta etsipenaren zilo beltzeko negarren artetik xutiarazten zaituen biziaren gutiziaz egina baita. Hemen den hitza, eskulangileak moztu, zizelkatu, osatu eta ele arruntez betez duen hitza da.

Liburua hiru zatitan agertzen zaigu: Ahüzkiko Argi-Kantak, Deep Northern Way eta Itsasoaren Bihotzeraino. Ohar gaitezke, gaurkotik iraganera doala bidea, anamnesiaren norabidea segituz: lehenik 1995etik 1997ra artean idatzi poemak, tartean 1994koa, azkenik 1993koa.

Bizkitartean, liburuaren oreka-pundua erdian finkatzen da, 1994an idatzi Deep Northern Wayn. Erran genezake, lehen eta azken poema espiralaren inguruko mugimenduan direla, beti erdira buruz bilduak, beti erdiari esker irekidurari irekiak; edo beste irudi bat erabiliz, triptikoaren bi saihetsetako ateek erdikoa dutela zaintzen.

Liburuaren atarian sartu aitzin, Etxamendi eta Chus Patoren neurtitzak hor ditugu aiduru; bidez bi-

de dabilen, exiliatua den kurritzailearen dinamikaren emaile: «estranxeira na miña propia historia».

Ahüzkiko Argi-Kantakekin junta egiten duen Gurea da poematik hegaldatzen dira heriotza-xoriak eta «hontzak eta kahakak / alanbreetan kulunkatzen / diren tenorean, / gau-pasaren ondotik». Poetak abisatzen gaituelarik, aitzin-aitzinetik bidaia bakarra izanik ere, estuki besteei lotua dela, beste bidaia-lagunen kurritzeari, «askatasun nerearen arduraren zati handia / zurea da eta vice-versa. // urruneko elurren ardura / gurea da».

MAULE-TEXAS

Ahüzkiko Argi-Kantak Zuberoako izadi, Zuberoako hizkuntzaren musikari eskainiak ditugu; hala du erakusten lehen zatiaren aurrean den kantu herrikoiak: «Goizetan eder dizü ekiak leinürü».

Baina bidaiariak mugak ez ditu maite, erroak ere ez, ez sobera; bidaiaria badoa, beti kurri, biziaren gertaldi-bideak hartuz: «For the first time he wish to be far away / lost in a deep, vast country / where nobody knew him». Poetak Wim Wendersen Paris-Texas filma gogoan dauka, eta ere prest bizkarreko zakua

Zuberoako mendi berdeetarik Texasko ordoki zabaletara joateko.

Ahüzkiko Argi-Kantak heriotzaren amildegitik jalgiak dira, izadia laberintu bihurtua den mundu batetik: «azken bihurgunetik landa, ordoki zelaira heltzean / ametsa, gurutzune zabalean hedatzen da»; «Altzairateko bide juntan noizbehinka / gelditzen delarik dudatzen du».

Poetaren muinetan dena muturkatzen baita, «karrika izkinetako kabina telefonikoa», «katerpillar horail erraldoi», «erreka tematsu», «desertu idor», «sai bakartien hegal», «hezetasun orlegi», «itsasertz biluzi», «karrika huts»ak...

Poeta bere saudadeaz, errabiaz eta idaztearen zailtasunaz ari zaigu: «odolusten doan bizitza mineraleko / une zaratatsuen gatibatzea»; «ardura dorpea baita idaztea».

Denboraren kurritzea deusek ez dezake geldiaraz, haurraren baitan den heriotza ere, deusek ez dezake ken: «urtetik urtera / munduaren higamena».

Baina poetaren barne-geografietan denbora eta momentuak ez daitezke linealak izan, eta bakardadeak ez du amodioa baztertzen, ez desesperantzak eta menpekotasunak biziaren alegrantzia eta liberta-

tearen gutizia: «ezer ez has, ez pentsa, ez erabaki / ez mintza amodioaren aitortzeko ez bada».

Argi-kantak jalgi dira Manuel Maria poeta gailego adiskidearen Terra Chà bakartitik. Euskalduna gailegoaren izenean izan da Francis Jammesen hobian «arrosa xoilaren» uzten. Literatura eta hitzen bidez zinezko zerbitzu materiala egiazta bailiteke, norberaren gauza, gauza kolektiboa ere baita.

HITZAREN DISTIRAZ

Hirugarren poema, Itsasoaren Bihotzeraino, kantore xaharren oihartzunez beterik den itzal-argizko Gaueko urratsak poemak ataritzen du. Poeta badoa Mauleko karriketan barna, «izotza ezpainetan» baina mamuak gainditurik.

Itsasoaren bihotzean gaindi doan itsasgizona, Frantziako presondegi batean hiesak jota hil zen Peio Mariñelarena da.

Itsasora buruz, marinelarengana, poetak egiten duen bidaia «itsasoa laño dago (...) nik zuk zaitut maiteago» lelo xaharrek laguntzen dute, eta ere Delirium Tremensen kantuak: «kresala azalean / haizea aurpegian / noizean behin gorrotoa diozu / baina zure barnean maite duzu / boga boga».

Bazterrak garratzak dira, marra zorrotz eta ilunez tindatuak: «barda arratsean marinelaren bihotza arta eskasez / itsasontzi krudelak bahitu duen burdinaren bahian». Bide guztiak itsasertz krudelean behaztopatzen baitira, autobide guztiek «itsasorantz zilatzen baitituzte ordokiak», erremediorik gabe.

Hala liteke segur, «hitzaren distira»rik ez balitz...

Poetak, marinel mututuaren ele puskatua bildu eta zabalarazten du, botere ezabatzaileari, poesiaren bidez, uko egiten ahal zaiola erakutsiz: «hitza ebasten ez diguteno biziko baikara».

Liburuko azken hitzek bidaia egitura ireki batean kokatzen dute, eta ez dea, preseski, azkeneko utzi behar espiralaren begia, triptikoaren erdiko atea, Deep Northern Way?

Junta egiten duen Elezurtzak hamalaudunak neguan eta ausentzian sarrarazten gaitu bortizki. Negua eta ausentzia hainbat zorrotzago non igande goizeko ekiak dirdiratzen duen bakea dirudien indiferentzia osoan.

Bake hau «izotzaren bakea» baita, deusen goxotasunik ez dakarren bakea.

Poetarentzat, bakarrik hil-bideko sofrikarioa, deusik ez jabal dezakeen zauri goria... Halere 'elezurtz' gelditu den poeta aitzina doalarik.

Eta hainbat hobe, azkenean, ekiak dirdiratzen badu: «irauteko zer beste duzu egun behar?».

DEEP NORTH

Navaho indiarren ahots urruna entzuten da bidaia luze eta minbera honetan. Poetak, Ameriketako ordoki horail gorri zabal eta navahoarren hitz zuhurrak bere baitan daramatzala, iparralde sakonari (Deep North) buruz doan lau herroketako autobidea hartzen du.

Berrogei prosazko poema dira eta berrogei sofrikariozko gelditze, dolu-bide luze honetan.

Amaren heriotza ezinezkoa baita. Amaren heriotzak izartegi itsuaren pean biluzirik uzten baitu. Baina ez da horrelako bidaia urrats berdinez egiten, badira patarrak, malda luzeak, pausa-leku zorrotzak, mendi-lepoak, jaisteak...

Oihan huts, ganbara itsu, lohi-putzu, lantzurda eta «uhuluen arteko hutsune»en artean, Deep Northera buruz doa lau herroketako autobidea.

Autobidean bost atsedenaldi har ditzakegu, 1, 10, 20, 30 eta 40garren testuetan. Aldi bakoitzak mugimendu eta dinamika ezberdinak badakartza, ez bakarrik uzten den munduaren arabera, baizik eta hartuko denaren arabera ere.

Poetak maitearen bila dabilelarik hartzen du bidea (1), maitasunak bakarrik baitezake egin zerbait min ikaragarriaren jasateko: «hire haserrea, hire berantetsia, hire oldarra bilatzen nian minak itsutu aurpegietan» (10).

Eta barneko bakardadetik maitasunezko eleak gero eta ozenago jalgitzen dira: «bakardadearen zamaren eramaitea latza dela errepikatzen diat. Aurkituko haudan arte ibiliko nauk hargatik» (20).

Ilunpea sakonago eta maitearenganako sua gartsuago. Bizirik irauteko gutizia; baina bizirik irauteko Deep Northera behar da heldu: «abiatu nindukan, xendra lohizuen buztin urak mirail nitialarik, hire kemena, hire oldarra, hire iraun nahia bilatzeko xedearekin» (30).

Berrogeigarren testuarekin autobidean dugun azken pausaldi honekin, iragan dugu ja Deep North: «Lau herroketako autobideek urratu diate Deep North honen bihotz uhargia» (40).

Hemen ni ja gu bihurtu da, baina maitaleen elkartasun hori besteei zabaltzen denetarik da, ja hesirik, oztoporik ez duen eta gerorantz doan lau herroketako autobidean; batek bere izate sakonena aurkitzen duelarik, libertateaz ere zerbait ikasten baitu: «Azken hatserainoko denborak, libre izaiten ikasten eta irakasten higatuko ditiagu» (40).

Ez da, ordea, testu honen konplexitatea lehen egitura honetan mugatzen. Iparralderantz doan autobide zabalaren lastertasunak gordetzen du ere beste neurri bat, geldiagoa, errepuski, oinez, urratsez urrats, batzuetan muturkatuz, egiten dena. Amaren heriotza ezinezkoan bidaiatuz poetak bere barnerantz gero eta sakonago doan bide ilunean darama urrats nekea.

Seigarren testuan hautemaiten da garrasia, laster amazurtz gelditukо diren haurren garrasia: «ama! ama! / deiadarkatzen genuen» (6).

Baina heriotza-seinaleak nonahi hauteman zitezkeen, hastapenetik:

Oihanean: «Oihan biluzietako argi gune ixiletan, itzalak ikusi genituen binaka heriotzaren urratsa dantzatzen» (2).

Jauzteia usteldu an: «haurtzaroko egurrezko pasagia euriak usteldu zuela ohartu nintzen. Jauzteiak orain inora ez zeraman» (8).

Ibai bazterrean: «Aturri ibai urrunaren azaletik altxatzen ziren laino-mihien miliken menean, iragana gero mardoago ari zen» (9). «Mantalin eta kapelet beltzek amirunaren» (11) usainean...

Baina bidea egin ahala latzago bilakatzen da, patarra gaixtoago. Laborari etxea, alorrak, pentze, oihan eta errepettitten kantuetarik urrun, klinika zurbilean dago ama: «Eterrez urrineztatu kliniketako ganbara beilegietako ohe hertsian etzanaren begiek, hiltzearen beldurrarekin batera, hiltzearen onarpena erraiten ziguten» (21).

Eta xaharregiak diren xaharrei alegiazko eztitasun melekaz mintzatzen zaizkie infirmiertsak. Mututu eta baztertu dituzte, c'est fini! Bota zabortegira. «Just Do It idatzirik zeramaten kirol-jantziz apaindu xaharrak, debaldeko espantuetan higatzen ziren etxekandere oihak, boborimo elkorrez adostasuna erakusten zieten izaki totelduak, aulkietarik sekula gehiago zutituko ez ziren behialako ardi-haiatzale zainartak» (21).

Oihan biluzia, oihan setiatu bihurtua da. Heriotzari ezin ihes egin: «eta otoitz egiten nizun ez nindezazun nihaur utz herioaren korroka elkorraren herotsen jasaitera» (28).

Amaren heriotza «otsaileko goiz batez, Barbari Bau Bau ixilka» hurbildu delarik...

Ez, maitasun handienak, hitz xamurrenek, ez baitezakete geldiaraz halabeharraren martxa: «maitia nun xira, nik etxitut ikusten, ez berririk jakiten...» (33); «intxuten gitxia ama? / eta erizainak erran zuen: / ez gitizü entzüten...» (34).

Eta Barbari Bau Bauk badarama ama... Justu poeta «oihanaren hegiraino» bideratzen denean (31); justu izatearen aditza pertsona guztietan konjuga dezakeelarik, ozenki eta deblauki, heriotza mota guztien aitzinean, heriotza partikularrari josten zaizkiolarik mututze, ixiltze, estaltze guztiak «Historiaren ahanztokietan abandonatuak» direnen mututzeak «estatistiken hondarkinak» (32).

Amaren itzaltzearekin poetaren bidaiak urrats berri bat hartzen du; urradura ikaragarria da baina hilak hilekin utzi behar, «Hautsak hauts». Poetak medicine-man indiarraren bidaia jarraikiz, senda-bidea atzeman du.

Oihana berriz aterbe leku bihurtzen ari da, amaren erreinu. Hilak libro dira. Errepettitta, miru, bele, kalatxori, sai lasaien hegaden artean ibil daitezke. Libro.

Eta kurloek negua bazter dezakete. Orain.

Requiem. Ama bakean dago, alaba aitzina doa eta idazteari esker, «Hiltzearen beldurra erran. Baina idatzi» (22).

Senda-bide luzean poetak ahanzturaren kontra, heriotza desegilearen kontra idatzi du, baina ere elkartasun esperantzagarriaren alde: «Oroitza hain zuzen, Ni Gu Naiz molde bitxian harilkatzen hasi zen. Gu gabe deus ez naiz» (34), Barbari Bau Bauk betiko mututuak, betiko umiliatu eta baztertuak bere zorroan gorde ez ditzan.

Poesiaren bidez, exilio guztiak, ixildu guztiak mintza daitezen.

Baina liburu honetan duzun hitza, hitz honen indarra, irakurle, ez da aise ixilarazten denetarik.

Aurelia Arkotxa

Hendaia, 1998-V-17

Bidez bide nabilena
Kantu bat dut laguna
Guziek uste nautena
Joan arin-arina
Etxamendi

estranxeira na miña propia historia
na miña propia paisaxe
na miña propia lingua
eu tamén
«Oceano», Chus Pato

GUREA DA

Haurreko hitzen doinua
bilatzen dut mikatz,
bidertzeko arroila
karroinduen ohantzean,
abenduko izotzek
zuritu inguruetan barna
gau-pasaren ondotik
egunaren urratzeaz harriturik
ibiltzen naizenean,
haizearen
marruma hotza lagun.

soro zurbailetan
jostari doazen
beleen deiak
buruan oihartzun:
— herioa beti garaizegia...

urratsean alta
haserreaz, nahikeriaz, aihergoaz
husten ari den

urgulua
baino ez naiz,
hontzak eta kahakak
alanbreetan kulunkatzen
diren tenorean,
gau-pasaren ondotik
egunaren urratzeaz harriturik
ibiltzen naizenean:
— askatasun nerearen arduraren zati handia
zurea da eta vice-versa.

urruneko elurren ardura
gurea da.

AHÜZKIKO ARGI-KANTAK

Goizetan eder dizü ekiak leinürü
Mündüa argitzen dizü üngürü-üngürü
Herrikoia

For the first time he wish to be far away
lost in a deep, vast country
where nobody knew him,
something without language, without streets
«Paris, Texas»

Bagenekien gau xoila,
bakardade erraldoia,
sentimenduen deboila
eta bizi-urrats doia.

suari ginen hurbildu,
amets bat ahalezkoa,
nahiz ilunbean bildu
egun beltzeko ezkoa!

kantua dena dolorez
atseginaire aldatzen:
iraupenaren kolorez
musua nizun galdatzen.

bilatzen nuen sutea
zure soakoan, ezti:
hautsa harrotu dutea
exilioz gaiten bezti?

ahaidea nuen mintzo.
goiza izan arren urre
argia zartatu zintzo:
bide hori etzen gure!

bego beraz bihotzean
sugarren erre usaina,
txinkazu, bake hotzean,
eta inkatzaren zaina!

zohardia dut gogoan
oraidanikan idazten,
ari naiz negu osoan
dolu xumearen hazten.

AM 3:14

Ardura dorpea da idaztea,
hitzaren bitartez
odolusten doan bizitza mineraleko
une zaratatsuen gatibatzea,
nekadura erraldoien bihikatzea
edo karrika izkinetako kabina telefonikoaz
oroitzea
        ardura dorpea da.
        mintzaira ondikotz, maiz adiztegi antzu,
gure dolorea da, geure amodio-hats dudakorra,
askatasunaren laban zorrotza,
eta badakigu
elea paperean desordenatuki etzaten
dugunero,
munduaren aldatzeko partez
guhaur garela
norabide zehatzik gabe
itxuraldatzen
zilo beltz bilakatzeraino.
        ondikotz
        desiraz apaindurik nahi zaitut
        ardura dorpea.

Hango bortu-gainetarik
altxatzean hego hatsak
beldurraren zainetarik
airatzen dira urratsak
ez dakit erranen dudan
nolatan maite zaitudan

behar-grina bedi lerra
lo hiletik gau hotzera
zure so beltzen ederra
joan dakidan bihotzera
ez dakit erranen dudan
nolatan maite zaitudan

hauts eztiaren zaparta
hitz arruntaren kalaka
suak bultzatu du barda
mintzo ausarten balaka
ez dakit erranen dudan
nolatan maite zaitudan

lur hutsetik begiraino
amets hotsa dut ekarri
bihotz honen hegiraino
zazpi musuz bake jarri
ez dakit erranen dudan
nolatan maite zaitudan

Ukamenak ilundu begientzat
jadanik
ikustezinak bilakatuak gara:
nehork ez gaitu gurutzatzen
edo
eta
saihetsetik iragaiten zaizkigunean
ez digute agurrik luzatzen,
        ez bagina bezala.
        egunerokotasunaren ausikia salbu,
maitalerik ez daukagu,
eta tristura dorpeaz
asetzen goaz;
alabaina
        guziek badakite
        maitasunaren oinarrizko
baldintza soakoetan
bermatzen dela,
        eta ukamenak ilundu begientzat
dagoeneko
ikustezinak bilakatuak gara.

Haize zirimola azkarrek inarrosten dute
oreka nekez zaintzen duenaren bihotzaren
zola, zolaren zola, urrats durduzatuegiak
marrumaz hantu biribilketa eroan biderkatuz.
eta inor, inor, inor ez dago aldamenean
holtz hegietan zutik bermatzen laguntzeko!

garaizegi lehortu diren aurtengo hostailak,
nahar eiharrak eta belar zimelak nora nahi
eraman ditzake haize zirimola haserretuak.
zu eta ni hosto inutil horien parekoak gara
errorik gabeko izen-deitura sarraskituak,
borondate eta gerorako amets beti ukatuak.
eta haizeak hegatz xumeak bulkatzen dituen
gauetan, beldur gaitzak bereganatzen gaitu.

gure egunerokotasuna oldarraren, doluaren
eta segurtasun ezaren erresuma larraitza da,
haizea jabaltzean hargatik, euria hasten den
unean badakigu bake aroak iraun ez dezakeela,
beldurrezko zirimolak bihotzean dabiltzalako
inguru trinkoen inseguritatearen indartzeko.

Amets egitea debekatua zaionean
guti aski du
eneguz hantu euri egun baten antzera
        biziaz axolagabetzeko,
        maitatua izan beharretik
eta maitatzearen urgentziatik
urruntzeko,
guti aski du
        X files
        U2
        Pi LT
        Lysanxia
utziak halaz ez baitio indarrik eskatzen
nola guzia borondatearen bortxaz
aitzina eramaiteak.

Noiztenka bere oinak iturrira zuzentzen dira,
idorte gorriaren ondotik atseginez hanturik bezala
lohitzar bihurtzen diren lur-mokorretan lerratzear.

urrats dudakorrak hats-ikara bahitzen dion unean,
urteak, hilabeteak, asteak eta eguneko ordu-izpiak
oro egarriak hilik daramatzala ohartzen da,
eta argiaren urrezko leinu hurbila bilatzen du
basamortuko kaltzio gostuko uraren ixuri ixilean.
izpiritua huts nahi luke, zeru grisaren doluaren
partekatzeko, sai bakartien hegaletan airatzeko,
arrotz egiten gaituen altzairu-urrinaren ahanzteko,
izpiritua huts eta gogoa garbi zure aske maitatzeko.

noiztenka bere oinak iturrira zuzentzen direlarik
izpiritua huts eta gogoa garbi senti ditzake
ur irakina harri hotzetarik ketan altxatzen dela
asmatzen duen abendu goiz herabean.

Urtetik urtera
jendearen urratsak
segurtasuna galtzen du,
ur-zipoa edo harri koxkorra
aski litzateke bidean
ahulenaren behaztopatzeko;
gorputz konkorrek
haizearen buhako azkarrei oldartzeko,
lehen baino neke gehiago dute;
eskuak,
haragiaz husturik bezala,
ez dira amets iheslarien
harrapatzera heltzen;
irriak,
dolorea ziminokatzen du
eta seme-alabak daroazkien
bakardadearen mihi herdoilak
minaren zirikari
bihurtzen zaizkie:
        urtetik urtera
        munduaren higamena.

anartean kasik sortzen ikusi dugun
haurra, so beltz xotilaren
bulkadaz,
ekakit ekakit errepikatzen ari zaigu:
nola jakingo du bada
        urtetik urtera doala
        munduaren higamena.

lurraren azal lehorraren antzera,
bere ohantze bustira biltzen den
erreka unatuaren pare
hertsatzen da behialako mundua;
bizkitartean ibai lodiek
beren hedadura gosetiaz orografia
guzia irensten darraite.

Joxemari eta Rafarentzat

Gure erroez, gure eleez, gure jendeez
sasi-bekaizki mintzatzen dira
folklore solasa irriz erabiliz, gureganako
apaleste ageria gordetzen saiatuz.

gure erroak lurretik bortxaz bereizten
dituzte, bideak eta hodiak zilatzean
haranen sardeskatzeko balio duten
katerpillar horail erraldoiek,
gure eleak hiztegi marduletan
giltzarrapoz hersten dizkigute,
itotzen, ahanzten, herdoiltzera uzten
ezpainetara jauki ez dakizkigun,
gure jendeak beren haurrak
ez onartzerainoko ahalgeaz hazi ondoan
repose en paix lasterra marmarikatuz
hilerri hotzetan ehortzirik dauzkate.

eta errorik, eta elerik, eta jenderik
gabeko itzalkiak bilakatu gaituzte.

Laida, 1994

Lanoen kantu zorrotza
zorionez pizten duten
negu lehorren bihotza
banbaka dugu entzuten!

ur-troxaz inguraturik
bizitza ez da agortzen:
lur usainean bildurik
eguzkira zara sortzen.

gure herriko lurretan
egun nekezak hantzean,
botza dabil elurretan
hor zaudela ohantzean.

mendi-haranen arratsa
botzak beti apainduko,
sortu berriaren hatsa
eztiki baitu zainduko...

Mendian gora abiatzean herriak, bideak eta jendeak
egunerokotasun damugabearen mehatxuzko gerizan utziz,
azken bihurgunetik landa, ordoki zelaira heltzean
ametsa, gurutzune zabalean hedatzen da:
hezetasun orlegiak zedarritu xendra bustiaren
hegietan, bazterretan, ilunbeetan, ziloka hitsetan
behi zuri mantsoak hausnarrean auher ibiltzen dira,
lepoan zintzilikatzen zaien zintzarri ozentsua
munduarekilako lotura bakar dutela;
ametsa, gurutzune zabalean hedatzen da:
eta orreaga hertsiaren itzaletik bapateko punpean
jalgitzen dira zamari beltzak eta behoka zurailak
edangia luzearen saihetsean alhatzen dabiltzan
ardi saldoen bakea marraka lotsatietan hautsiz.

ametsaren oihala ttanka goibeletan hedatzen delarik
zeru izartsu bilakatzen da lurraren azal minbera.

Bortu-aska hertsi hartan
aspaldiko partez
seguru sentitzen da,
uholde iragarritik salbaturik bezala.
laster egin dezake laster
aire hotzak birikak
labaintzen dizkiola,
hatsa gal artino,
laster.
        mendi-bizkarretan gora datozen
erdeinu-mehatxuetarik
ihes abia daiteke,
aitak, senarrak, nausiak ohoratzen
dituen jendartetik
ihes,
funtsezko askatasun gisa
laudatuak diren ukamen
eta menpekotasunetarik
ihes,
        laster egin dezake laster.
        han, gainean, uholdearen haiduru,

aurpegia beltzez tindaturik,
odol-harria ahurretan
itsasorantz so dago:
joan baledi,
        aurki lezakea lurrutsetara
laguntzeko untzirik portuan?
badea basamortu aski handirik
ihes zilegiaren gerizatzeko?
ala norberak bihotzaren sakonean
darama bilatzekoa duen
basamortua?
        bihurguneko haltzaren maldara amoltsuki
erortzen dira euri-berriaren
malko etsituak:
oroitzen da maite duela eta ez diola
        oraino deus erran.

Niko Etxartentzat

Altzairateko bide juntan noizbehinka
gelditzen delarik dudatzen du eta dudaren
ezabatzeko
zigarreta baten biltzen hasten da ikaran
Orein-Mainguaren hitzak gogoan:
        kea askatzean, nigan libre behar zuena
        soltatzen nuela banekien, eta halatan
        lurreko abere, landare eta izaki ororen
        bozkarioa emendatzen nindoala.
ezpain-arte iziotuetarik
kea airatzen eta laino-adarrekin
ezkontzen miresten duenean,
bortizki nabaritzen du
biziaraz dezakeen libertate apurraz
maite dituenak
eta gaineratiko guziak
lurraren azken muturreraino
libre izan daitezkeela.

Arrats epeletan oinez
joan ginen gu amoinez
eta oraindik gabiltza
amets egiten zikoinez

Saleta Goy eta Manuel Mariari

Aturri hegitik Miñoren ezpondetaraino
hedatzen da iparreko haize hotzek
larrutu Terra Chà bakartia.
        Harri bustien artetik
        asunek etengabe
utziaren mugak finkatzen
dizkigutela, bide lohizuak
goroldio usainez malgo hantzen dira.
        Hazparneko hilerrian
        Andurina eta biok, zuen partez
izan garelarik, arrosa xoilaren
Francis Jammesen hobian
pausatzen,
euri jada ezinduak
lurraren zauri irekiak
erakutsi dizkigu:
j'aime l'âne si doux,
marchant le long des houx,

Aturri hegitik
Miñoren ezpondetaraino
Terra Chà gureetan.

Erreka tematsua izan zen, salbaia eta moldakaitza.
— borrokatu gabe ez gara errendituko! zioenean
hedoien gerizan aterbetzea nahiago zuten,
ur-ttanka herabeak
bakezko sabel handiraino eraman zituen,
eta orain
        itsas belar malgoetan gatibaturik
uhinkada ezti bakoitzak kolpatzen duela,
gazitasunaren eremu uhargietan galdurik dabil,
        kordoka askatuko dion
        goizalba arrosaren haiduru.

Burdin herdoilduaren eta gaur egungo
debaldearen lurrutsetan
izerdiaren gostuz deskargatzen den
altzairuaren usain zimikaria
duen hiriaren bihotzean,
        zintzurraren bustitzera elkarren
gomitatzeaz beste zereginik
ez duten langabetu berrien
lerro tinkoaren ertzetik,
        goizeko hamarretako airearen
dardara zuhurra balakatuz
amodioaren hitzordura
lehiatzen dena
da.
ez luke deus gehiago izan nahi.

Ainara, 1995

Zurzuri egurrezko axis mundi zardaia dago erdian,
haize hegoek eztiki xahatu ortze urdinaren jabe den
eguzki eskainirantz deika bezala, lurrean landaturik.
arrano aztaparrek papoko larrua sardeskatzen
dutela,
negar eta odol ttanka nekaitzek axis mundi
haren mina biderkatzen duten uhal meheak
ubeltzen dituzte; nola barka orduan?
askatasunez gose gaude! oihukatzen du,
atabal joaldi elkorrez azpildu urrats gatibatuak
biribil ankerraren eremuko errautsetan finkatuz,
goizaldetik gauerainoko bidean ekiaren argi itsuak
begi-niniak lotsagabeki erretzen dizkion bitartean.

menderen mendeetako ekiaren iraiztura goresten
duen
dantza hurria emaiten du axis mundiaren itzalpean:
ez sinets bizi-eredurik egokiena zein den
larderiaz

irakasten duten pentsa-maixu zuhurren hitzik, ez
erori,
ez baitago inor bazterretan zure altxatzen
laguntzeko,
dantza, dantza ezazu, zuhaur axis mundi izaiteraino.
askatasuna larru-puska minbera da! dio,
diozu, diote, diogu, oldar ixilaren oihartzunak
goza ditzan menpekotasun-mail anitzek errotik
mutilatu gure gorputz zimelak!

larru-puskak emekiño gorputzetik auhenka
airatzean,
munduko populu zahar, herresta, gaizki-ikasi, zikin,
lizun eta pobre denak ekiaren ahuspez ametsaren
aroan
ber-bilduz, axis mundi delakoa ikaratzen hasten da.
jakin badakigu aske garela! dio
bortu orlegiaren lur-ertzean ekia sutan gordetzean,
agerpen bakegarriak oinazearen, ahalgearen,
etsiaren
eta hil-hurranaren ahanzte hatsustua dakarrela:
jakin badakigu aske garela! errepikatzen dugu,
herioaren leize-hegian intzirika, axis mundi iraun
nahiaz dantzan dardaraka ikusten dugularik.

Egia baldin bada hil arte bizi behar dugula,
bizi gaitezen beraz:
bakardadearen urrakoa bihotzean zabalik,
        dolorezko opari gisa haize hotzei
        ahuspez eskainirik,
haragi puska utziak idor dakizkigun.
zergatik xuxen bizi garen sekula eskatu gabe,
bizi gaitezen beraz:
maitatzen edo maitatuak izaten
        ez dakigula onar dezagun behin,
amets gaiztoak eta dudaren zurrunbiloak
burumuinak udalatuz
leher daitezela
        eta argi lehia minbera horretan
gaueko segundo bihikak oro
bakardadearen zedarri bekizkigu...
egia baldin bada hil arte bizi behar dugula.

Bele beltz ausartak nagi jostatzen dira
alhan ibili dabiltzan axurien erdian,
lur gaineko bazka idorraren aixolbean
euri egin dezan deika;
euri uhar mentura hondarrean agertzean
zeruan hedoi gris hantuak
garaile biltzen dira.
beltza lur gainean nola,
ortzaizean hala, urdin ttanka herabeak
hedoien setioari oldartzen zaizkio.

bihotza gudu-alor erraldoia denean
zeruak eta lurrak
bake-zigiluz janzten dira.

Herio mehatxua
ondare bihika gorraila
bihurtzen den goizetan,
hegoak,
haize eroak
gorputzak urez hustu arau
larru idorreko arroila pairatuetan
ondarekin zorrotzak
eztiki pausatzen ditu
urrakoak josi beharrez.
        itsas ametsez hantzen gara
herio mehatxuaren
ondare bihika gorrailak
amodio bihurtzen diren goizetan.
eki-dantza tematsuen
eskaintzeko zilegitzen diguten
alor hertsiaren saparren maldan
metatzen dira gero
ihardok-lehiaren bihozki bakartiak.
        mineral errautsak
senda gaitzala! suntsipen iragarritik

urruntzeko kemena eman diezagula!
eta iraun-bidea erakuts
jadanik debekatuak zaizkigun
dolamenaren eremuetan barna!

Arrotz herrestatzat baldin bagaituzte ere,
hilak ehorzten ditugun lurraldekoak gara,
eta orduan
        negarraren eta etsiaren
ixuriak baino
ez du axola:
hilak negarreztatzean
bakardadearen zamaz plegaturik
guhauren dolu iragarria
dakargu.
        entzuten ahal nauzu?

Garapen iragarriaren sareetan
lekurik ez dugunok
hargatik,
oinez
jarraituko dugu,
        desertu idorretan
zango-zola lardaskatuak
orbaindu arte.
zure eskua, zure soa,
zure ezpainen plegu minbera
gidari xume bekizkit,
pentsamendu doieko
        argizpi kuttun,
are urrunago eraman dezagun
garapen iragarriaren sareetarik
kanpo daramagun
ibilbide
itxuratzailea.
        desertu idorretako
errautsek
betazalak, biloak, soinak

lurrez
estaliko dizkigutelarik
salbatunean,
noizbait
ez ote gara
elkar ezagutuko?

Jagoitik basamortu horailak ditut desiratzen,
itsasertz biluziak,
karrika hutsak,
eguzki hobengabeak kixkaili larruak,
irri partekatuak noiztenka
eta denbora.
elearen lainoa plazaren erditik
kezkaren sosegu agurka
hegaldatzen denean
azkorriko zeru ubelegiek biltzen naute
eta denborak.
        lerratzen diren so auherrak
ditut maite eta denboraren
bihozkada hunkituak:
ezer ez has, ez pentsa, ez erabaki,
ez mintza amodioaren aitortzeko ez bada,
utz bizitzaren hautsak herioaren itsutzera
eta ibili
        denboran bezala
kanta baten hatzetarik oinik dukedano.

GOIZ HURA

Nahi nüke orano goiz hura ikusi
üdazken nagiteko ürratsen sokorri
bilakatzen zela, zelü zola gorri,
argia ürratzean ene Arhantsusi...

bapatean kürloak, hodei itsasoa
goiharatzez apal, üdüri balakan,
kuru-kuru ozenez iragan kalakan
gatibatzez betiko ene bazter-soa!

eta doi bat gorago zelüko sabaian
ürzo saldo ixilak hegalen kemenez
bazoatzan eztiki urdinki nasaian:

ikara nintzan bakez eta hasperenez
hegazti horiekin, ortzondo lasaian,
bizitza taigabeko bidaje ez denez!

ELEZURTZAK

Ekiaren distirak ur-hatsen gainean,
errekaren ezpondan nagiki lau belar,
izotzaren bakea itsasertz zainean:
irauteko zer beste duzu egun behar?

negurako jauntzitan igande goizetan
jeikitzen dira usu etxeko bazterrak:
meza-bideak hutsik, beti otoitzetan,
gogoratzean gure haurreko lasterrak.

artozango ustelak ihaurgi lurrean,
eta haien lausenguz kantari beleak
amets baten ondotik, nola elurrean!

ortzaizean ur bitez maitasun xedeak,
mina hazten dutenak azkorri urrean,
urratsean finkatuz karroindu eleak!

DEEP NORTHERN WAY

argizagi ederra argi egidazu
bide luze batean joan beharra nauzu
Herrikoia

Flores ausentes, perfume
do olvido,
cantan desde outros momentos
onde respira a nostàlxia.
O medo,
diante da escura xanela
reflexa
o incompleto presente
Luisa Villalta

Lau herroketako autobideak xede baino ez direnean, Deep Northern haren neguaren gutiziaz abiatu ninduan, eta xendra lohizuen buztin urak mirail xume nitialarik, hire itxura, hire irria, hire haserrea bilatzen nian hotzak erdiotu ezpainetan. Bihotzaren basamortuak zeharkatu arau, bakardadearen zamaren eramaitea latza dela errepikatzen diat.

Aurkituko haudan arte ibiliko nauk hargatik.

Oihan biluzietako argi gune ixiletan, itzalak ikusi genituen binaka heriotzaren urratsa dantzatzen, eta hosto malgoen zain meharretarik sapa idortzean bezala, amodio-uhina gutarik desagertu zen. Bapatean beldurrak purruskatu zuen huntz-erroek larrantzi esperantza arruntaren horma. Hutsaren lekuko gelditu zen har malatsek xurgatu enborra.

Haltz-abarretan pausatu zen tristura, kahaken gisa.

Ausartziaren haiduru.

Nola erein ditzakegu hemendik harat, haraitzinean amoltsuki irauli hitzalorrak?

Ibiakoitz arratsalde eurizu baten samurtasun harrituak gatibatu gintuen gero. Errekaren naba nagian barna, ustegabeko bedatsak iraun gogoa akuilatzen zigun. Zeru grisaren eremu bekaitzetan iparrerantz hegaldatzen ziren kurloei galdatzen genien ea negua bazter zezaketenez.

Aldiro, lotsaren antzeko zerbait inarrosiz eta sutondo mantsoko hautsaren hondarrak zihikatuz, haurren joko airosek geldoaren oreka suntsitzen zuten. Doluaren hats hain hurbila goxo zitzaigun.

Leize eta iraun gogo baizik ez zen gure bihotza.

Behialako sukaldearen ilunbe maiteminduak haize-
mutiriaren ipuinak asmatzen
zizkigun, eta lurrutsen kandolak
laztanduz, ganbara-itsuetan aditza
ahalgeaz biluzten saiatzen ginen.
Minbizi gaztigakaitzak haragi
gaineko zauriak itsasertzaren
neurrira irekiz, hezurrak errauts
zitzazkeen.
Halatan, hitzaren jarioa mendeetako
sarraskiaren odol beroaren idurikoa
zen: herioak lohi-putzu idorrean
harrapatu gintuen.
Zergatik egon ginen ametsari uztarturik
hainbeste denboraz?

Ametsa orduan, askatasun eta eztitasun mineralez
hanpaturik zetorkigun, balakek izotz
utzi kasko-zokoen betetzera: teilatu
herabeen gibeleko gerezitze loratuen
agerindeak zoratzen gintuen.
Bidetik jalgitzen ginen, eskuak ahuspez
luzaturik, iturri nahasien ur uherrak
edan lehiaz, bizi-egarriaren
ahanzteko. Karriketan aldiz, amak
haurrei debaldeko erasia
algaratsuetan pasatzen entzuten
genituen, eta haur malko bakoitza
puñal zorrotz zitzaigun.
Salbatizen deitzen zintugun: doluaren hats hain
hurbila!
Ardai hezearen garrak iraupena doi-doia
zilegitzen eta segurtatzen zigun: zer
zen garai hartako amodiorik gabeko
zorion hura?

Larrazken damutuen ihaurgi hiroa dardaraziz, urrinetik beretik segitzen genuen gauerdiko azeria gordegietarik ateratzen eta ihizi errazaren hatzetarik abiatzen. Mendi-bixkarretan itzalak bazebiltzan.

Atabal kolpe xeheak oihartzun, lantzurda hasi zenean, aipa ez genezakeen antsiak labantzen zigun golkoa: amodioa ixiltzera heziak izan ginen. Dailuaren mihi mehearen mehatxupean

ama! ama!

deiadarkatzen genuen, ni herbailetarik gu durduzatietara lerratu inguma linkatxen artetik. Maitasun ohiaren hegaztegietan behera, begietarik negarra ixuri zitzaigun bero bezain mikatz.

Gauaren oihal ahula urratuz, amodioa uhulatzen
zieten hontzek kahakei, amodio,
bular, ezpain, sabel, hasperen,
intziri, sexu epel desira latza orohar,
eta uhuluen arteko hutsunea
zertarako bakarrik egon?
galdearen golde nabarrak udalatzen zuen.
Haizeak zuhaitzen abar eiharrak
purruskatzen zituen eta amodioa
argizeituaren aho-izkinan zegoen
beha.
Arratsaren aztaparretarik
zure ondoan nahi nuke
murmuzikatzen nuen. Ahizpari so egin nion, izua
irakurriz aurpegian. Lurralde
hauetako haurrak ipuinez gose
ginauden eta hitzaren aran ozena
pairatzen genuen ondikotz.

Apirila amoltsuki hurbildu zen belardien asegarri.
Haraitzineko eki-leinuruak iragarri
jauzteia hariztiaren mundu hegian
agertu zitzaidalarik, urrikalmendu
eske joan nintzaion, minaren
aitortzera hots! Asunak eta nahar
txirikordatuak baztertuz, haurtzaroko
egurrezko pasagia euriak usteldu
zuela ohartu nintzen. Jauzteiak orain
inora ez zeraman.
Herresta galduaren trinkili-trankalak oihanera
eraman ninduen, eta dantza
kolpatuak eskaintzen zituzten
jendalde apaletsien erdian higatzen
nituen egunak.
Gerorik gabeko pobre mutu haiek nere
haurrideak ziren. Anaiak zenbait.
Ahizpa erreak anitz.

Ekitoltzearen iraiztura samin zitzaidan unean *urrikal zakizkigu* oihukatu nuen berriz, eta zure begiak herioaz jabetu arau, Aturri ibai urrunaren azaletik altxatzen ziren laino-mihien miliken menean, iragana gero mardoago ari zen.

Amodiozko eleen harresiak zaintzen genituen. Etorkizuna ebatsi ziguten. Burla gorakoiak baizik ez ziren aditzen gure ezpainak betiko hersten ziren ilunabarretan. Ordoki eta zelaiak ere histuko zirena?

Penak kateztatzen ninduen eta kidearen soakoan mendekua ikusi nuen bozkariozko ahaide batekin ezkontzen.

Lau herroketako garapen hitzemanaren autobideak
xede baino ez direnean, Deep North
haren etsipenaren harrotzeko
gutiziaz abiatu ninduan, eta xendra
lohizuen buztin urak mirail xume
nitialarik, hire haserrea, hire
berantetsia, hire oldarra bilatzen
nian minak itsutu aurpegietan.
Bihotzaren basamortua
zeharkatzean, bakardadearen
zamaren eramaitea latza dela
errepikatzen diat.
Aurkituko haudan arte ibiliko nauk hargatik.

Abantxu agor geneukan ama-hizkuntzaren eresiak ekartzen zizkigun iparraizeak. Saparretarik errepettittak jalgitzen ziren xotil eta mezabidean, hilik ere egundaino pentze edo elge malkarrezko lur hau abandonatu ez zuten jende konkortuetaz oroitzea debekatzen ziguten. Alta caporal tabako urrinez apaindu mila karkaren oihartzunek burzoratzen gintuzten.

Gosaio auher andanak hazirik matelak ximurtzen zitzaizkien, iraun-oinazearen arroilak larruan ezinaren ildo. Mantalin eta kapelet beltzek amirunaren usaina zekarten, bihotz bakartien sukar malinak jabaltzearren.

Gure arbasoen gisa, handikien urrikia jasaiten genuen.

Ahots melengak gutizia mesprezagarriz hantzen ziren.

Auhen kantarik plegatzen ez zuen lurraldea,
bortxazko ixiltasunaren zamapean
xifriturik zegokeen: orratzen odol
ttanttek gozagaiztu zizkiguten
ahosabaiak, eta aintzira gelberetarik
zapalkuntzaren soinuak danbaka
ixurtzen zitzaizkigun. Soak goibel
bezain urratsak hasman, laguntza
bila abiatzen zirenen antzera, aire-
askea xerkatzen genuen orotan.
Erraiten ziguten negua zela, baina nekez
sinesten genituen gure gorputzetan
beren hoben-hotzak txertatzen
zituztenen arrazoi itxurako
heiagorak. Bagenekien neguak ez
zuela sekula nehor gutietsi eta
amarekilako solasean tematzen ginen
ontsa da, ontsa da
elkorrez, herioaren gudukalorraren
eleustasuneraino lerratzeko.
Arrotz eta bekaitz moldatu gintuen

menpekotasunak. Trintxeretako bakea nahi zutelako, auhen kantak imilitzen parekoak ziren: funtsik gabeko fantasiak!

Muga asmakaitzera ekarri gintuztelako, ordoki zabalenak ez ziren ardura gerizarik egokienak arrotzentzat, kanpotarrentzat alabaina, eta gu ixiltasun hormatuaren tentazioak gatibatu izaki durduzatuak, halakoak ginen zorteak eskaini lurralde orlegian. Entzunak barneratzen genituen, apalesten gintuztenei autojustifikazio errazak emaiteko jaidura txarrak menperatuz: ekaitza iragan artean ihardokitzen genuen, zintzurrak angustiaz trabaturik.

Umeki arrotzak ginen. Langile arrotzak gara. Oroitzapen arrotzak girateke. Biderik zuzenena zein zen indarrez erakusten zigutenenganako fede izpirik ez geneukan. Nola sinets jendetasunaren ugaritasuna ukatzen zuen eredu bakarrean?

Deus guti ginen munduaren egunerokotasunean
eta munduaren aldatzeko xedeak
guhauren itxuraldatze mikatza baino
ez zekarrela ohartzen ginen,
ondikotz.
Muga ez zen neholaz ere ele hanpurosen oldar-
eremua: denbora zirurikan
bihikatzen zihoakigun, eredu
bakarrak aterbetzen zuen gunetik
kanpo, jujatzea, zapaltzea, baztertzea
debekatuz. Hizkuntzarik askeena
desiratzen genuen. Ardura, ezin
ezpainetaratua zen haserreaz
irakiten ari zitzaigun, bihotza deitzen
genukeen dupina herdoildua.
Memoria oroit-ahantz-oroit-ahantz ari zen
bitartean, beldurrak bere ilunbe-sare
trinkoetan itotzen gintuen.
Pentsamendu biluziari, ekai mineral
idorra baizik ez zitzaion gelditzen.
Eta goizero, plazara irekitzen zen

leihoaren maldan idazten genuen, pentsamendua doi-doia bizirik sentitzearren.

Ixiltzea manatzen ziguten larderiazu, eta ixiltzen ginen.

Ahoa hertsorduan, zurzuriz eta haritzez azpatu bide-muinoaren gibelean, eritasun garratzak hustu eta erremedioek suntsitu hilotz amoltsua agertzen zitzaigun.

Bizitzea ondorioz ez zen ausart maitekorren mihiseetan. Kopetak makurtuz elkartzen ginen, hitzaren mamitik ihes. Ohe zinpurtuetan larrua jo arren, amodiorik ez zegoen. Goiztiri zurietako lehen orenetan gorputzak urratzean, agur laburrak betikoak ziren. Alkohol bortitzak zurrutatuz eta lo-belarrak errez irauten genuen.

Hotzez karkara ginabiltzan hurrengo hitzordurainoko bakardadean.

Herrenerritar hondarkinez mukuru estali munduko karriketan sentimenduaren ordez, axolagabetasuna bermatzen zitzaigun. Hirietako harresien maldan atsedentzeko eskubiderik ez geneukan.

Ametsak zekarkiguna falta genuen berotasun apurra?

Denbora eskasa genuen maitatzen ikasteko.

Bizitzea hain zuzen, gure gisa ihes zebilen, gihar sendoak hustuz, hezurrak erraustuz, eta atzoko ipuinen zainak emekiño xurgatuz. Eguneroko ikusaldietan, bizitzea hain zuzen, begiratu, goxatu, maitatu, lagundu nahiko genuen. Herioaren joria ordea ixuri harrapakaitza zen. Irria neke zitzaigun. Ahotsa ahul. Otsail arratsaldeetako euri uharrak indartsuegiak bide ziren.

Deep North honetako haranetan barna amor-eman desirak gidatzen gintuen. Bapatean hilkorrak ginela onartu genuen: bizitzearen sabeleko altzo berdinean generaman heriotz-muskila. Eta alderantziz.

Argizirrintako koplak ontzen genituen ondikotz halabeharrez. Plazako ezki lerro bikoitzek balizko iraupenezko askatasunaren usaina hedatzen zuten eguerdi aldera. Zauri zizkolatsuaren ziztak ahantziz, egiaren ahoskatzeko gai ez ginen jagoitik: hilkorrak, hilkorrak, amodioa dastatzeke hilkorrak.

Non zegoen gure tokia?

Urratsen asotsa, bildotsen marraka, zuhaitzen itzala, ihardespen egarri sakona, zerualde urdina, grisa, esnezua, arbelezko hegatzei galdezka, non, non, non, eta amodioa hurrupatzeke denak hilkorrak.

Ohaide abandonatuaren ohoretan, bakardadea berriz lau botzetan kantari abiatu zen, izpiritu dantza hurria kulunkatzen zuten kide biluzien erditik. Lurrertzaren urruna emagaldu oparoegia zen.

Amodio ukatuen baratzak kardoz estali ziren. Mihi malgoak barrabilen biribilean eztiki lerratu arren, maitaleei ezintasunez mando geratzen zitzaizkien zakilak, hitzeman atseginaren ordez gabetasunaren ahalgea gorputz zitzifrikatuetan hedatuz.

Erdeinuaren itzulpen ugari irakurtzen genituen.

Nazka, desira geldoaren suntsitzaile izan zen.

Jauz egin ezan maitea eta haugi!

Orduan, ezpondako holtzaren goratasunak emaztea beldurtu zuen.

Ezaren burdin-bideetako altzairuzko trenen
ardatzen garrasi garaileak entzutean,
iduritzen zitzaigun bagoi
hatzikaratuek pentsamenduaren
elge-antzuak ildozkatu behar
zizkigutela. Bapatean mehatxatuak
ginen: hitzaren algarak urtzen ziren
metal astunaren zamapean.
Erditzeak ez zigun lurraren jabegorik
baimentzen.
Esne-ttantta zehargien zenbatzeko erhiak
bularretan desesperatzen ziren: titi
punta kolpatuetarik zetorren jori
horailaren murtxatzeko nehor ez.
Ondorioz, trenetako WC likitsetan
lehortzen genituen negarrak, ahalgez
bezala hunkitzen papo xifrituak,
musukatzen ezpain bekaitzak eta
pentsamenduak izoztu burumuinak
geltoki burrunbatsuz betetzen ziren.
Herria ments genuen haurrak ginen.

Lau herroketako autobideek ez diate jagoitik Deep North honen negua munduaren udaberri eternalari lotzen. Bizkitartean, abiatu ninduan, eta xendra lohizuen buztin urak mirail xume nitialarik, hire itxura, hire irria, hire kezka nagusia bilatzen nian bekanegi laztandu sabeletan. Justiziaren basamortuko gosea ahantzirik, bakardadearen zamaren eramaitea latza dela errepikatzen diat.

Aurkituko haudan arte ibiliko nauk hargatik.

Eterrez urrineztatu kliniketako ganbara beilegietako ohe hertsian etzanaren begiek, hiltzearen beldurrarekin batera, hiltzearen onarpena erraiten ziguten. Sentitzen genuen herio-latzaren orena tarrapataka etortzen zela, sinesteak, desira idorrak, usteak, fede apurrak oro boleran errautsiz.

Eritetxeetako pausageletan gurutzatzen genituen egunero *Just Do It* idatzirik zeramaten kirol-jantziz apaindu xaharrak, debaldeko espantuetan higatzen ziren etxekandere ohiak, boborimo elkorrez adostasuna erakusten zieten izaki totelduak, aulkietarik sekula gehiago zutituko ez ziren behialako ardi-haiatzaile zainartak. Munduaren azkentzearen lekuko desesperatuak ginen.

Eta plazara heltzearekin ezki hotzikaratuen maldan pix eginik, galtzak ozkan jarri baino lehen zakila inarrosiz, alegeraki agurtzen gintuen gizon adinduak.

Herioak ziona Just Do It?

Hiltzearen beldurra erran.
Baina idatzi:
Karrika izkinetan metatzen ziren zikinkeriak
gure ama-hizkuntza baino askoz
hobekiago tratatzen zituzten
udaletxeek eta estatu zentralistek.
Hil bezperan, zor zitzaigunaren eske
abiatzen gintzaielarik, aitzinean
altxatu horma mutu-haserrekorra,
esperantzaren urgentziaren itotzeko
asmoz, urmael ustel bilakatzen zen.
Etsaia ortzaizean uhargitzen zen
arren, tematzen ginen azkonez eta su
ziriz borrokatzera. Mesprezua
zerabilten ezpainetan, eta azkenean
agurrik gabe ateratzen ginen
boterearen gela argiztatuetarik.
Ez genuen inoiz ezer lortzen, ama-hizkuntzak ez
baitzuen haien gostuko zaborrak
haina balio.

Baina idatzi:

Hatsa trenkurran ginaudelarik oraino, labaki kixkalduetan zehar, zaldunak azote eta harma kaskaka hurbiltzen zitzaizkigun. Oihanekoen esklabo eramaiteko untziak kaia hezeetan haiduru bazirela zioten harro, hizkuntza debekatuen eresiak exilioaren zeru zilarrak labanduko zituela, eta gorputzak heziko zizkigutela hainbat non gure emesoin sarraskituak begiztatzean, gizonen soakoek gohaindura seinalatuko baitzuten.

Emenpekotasuna ez zen neholaz ere poesiaren hazkurri.

Baina idatzi:

Olerki bilduma sariztatuetako gizonen sexuak agertzen zitzaizkigun kontzientzien semaforoak kudeatzen, indar gutiziaz hanturik, bortxarako eraikirik, eme gutienez emearen larrua sardeskatzen eta egunero

zaplastatzen gintuen gerla zikina
aipatzean, olerki bildumetako
gizonen sexuak atzeratzen ziren: hau
ez da gure poesiaren gudukalorra,
coitus interruptus, stop.

Bizkitartean, solilokio erraldoian irauten zuen
posta-etxe kantoian, bere
bakardadean oinazez konkorturik
zegoen herriak.

Hiltzearen beldurra erran.

Itsumandoka gindoazen, mintzatzeko ahalmenik gabe; kasko-zokotik bapatean, eta ez jakin zergatik, mediterraneo aldeko herri erre desolatuak jazarri zitzaizkigun: auherrezia eske bezala, herio debaldez usantsu. Herrokatzen genituen eleak, ihes zihoazkigun eztabaidak, agertzera ausartzen ez ginen antsiak, barne-koropiloak, aitormen zaharkituak eta betiko dudak, harrizko kordokaren gisa kabitzen zitzaizkigun zainetan, odolaren ibilera trabatuz.

Ekintzagabetu zen aditza: higatzen zihoan denbora, deiadar ahulka, kopetan behera otsaileko barur egunetako hauts bustiaren hatzak utziz.

Aizkoraren musu zorrotzaz, behialako enbor ustelduaren altzotik sugea zirristatu zen, iraztorrean barna. Oihaneko aztien inguruan gordetzen ginen anai-arreba anitzek hikaren mintzoa geneukan altxor:

zer ari haiz kuttuna?

eskatzen genion, adibidez, lur mokor egarritsuak purruskatzen zituenari, eta sugearen zara-zara arina lagun ihardesten zigun:

amerria lantzen dinat.

Berunezko zeruak zilatzen zituzten gero, enara unatuek, miruek, beleek, sai lasaiek. Kukuak aihen zaharrean kantatu arren, ohartzen ginen zapalkuntzaren erresuman amodiorik ez zegokeela, bakardadea eta desterruaren erreinua baino. Ordea, eraik genezazkeen habiak ez ziren beti gure umeentzat.

Hogeita bost mila jende ginen, hogeita bost mila bihotz urratu, gure lurrean exilioan bezala bizi ginenak, eskubide ukatuen izotzek karroindu agurrak banatzen, maitasun herabeen ildoak ureztatzen, matahameak, taloak, pastetxak eta tristuraren iturburu fama zeukaten mestura puskak murtzilikatzen.

Sukaldeak hustu arau, etxe-lar etsituek abesten zuten

artoz haztea hon düzü libertatea bagünü.

Erraietako exilioaren gerizan, herioaren untziak doluzko banderaz janzten ziren, eta egunak otoitzean bihikatzen genituen.

Noizean behin zapaltzen gintuztenak etortzen ziren bakea eta bi sosen trukean, amodiozko penak nola kantatzen genituen mirestera. Noizean behin ere, armaturik zetozkigun, menperatu hauen oldarra bortitzegia zela sumatzen zutenean: ubeltzen zituzten gorputzak, itotzen hatsaren muskilak, ebakitzen sexuak, lau balaz zartarazten buruak, lardaskatzen bularrak.

Eresiak mingarriago bihurtzen ziren, eta labaki urrineko bakea orotan hedatzen zenean, eskubide apurrak hitzemaiten zizkiguten, baina Deep North honetako oihanetan, bakarrak ase beharrez, aise zitzaion boteredunari hitzaren ezeztatzea: gurtzale guti aski zuen Hark, gurtzale fidagarriak ziren ber.

Menpekotasunak nabarduraz nabardura gure kaskoetako arroilak buztinez tapatu zituen, eta azkenean, ahalezko ekinbide gisa, zapaltzailearen aztereredu, gostu, erabaki eta helburuak baizik ez zitzaizkigun gelditzen. Larrua ere, Hollywoodeko filmetako erritualak segituz jotzen genuen.

Bizkitartean, gu, oihan setiatuetan aterbetzen ginen inutil, lohizu, likits, agerrezin, kateztatu apaletsiak, herioaren usainaren aurka borrokatzen tematsuki saiatzen ginen, hitza, hatsa, urratsa, sentimendua argizpi ahularen pare zuhurki gerizatu beharrez.

Ahizpa mutuaren eskuak balakari bihurtzen ziren zauriaren ezpain odoltsuetan: herioak, geroaren eta amodioaren arduradun berezi izendatzen gintuen.

Ezki biluzien hats-bahituaren abar meheek birika higatuak marrazkitzen zituzten ilunabarrean gurutzatzen zintudan, eta otoitz egiten nizun ez nindezazun nihaur utz herioaren korroka elkorraren herotsen jasaitera. Baina ez zinen gelditzen. Ez zenien nik igorri sokorri-gutunei ihardesten: erran beharra kolpeka ari zitzaidan lumape gaztigatuan.

Aurrean aurkitzen ginelarik hondarrean, erran-beharra, zure zakur hil-berriaren dolu ikaragarriak suntsitzen nabaritzen nuen. Joanen nintzen bai ni ere, arrotz bat bezala, erroak airean, damuz eta zaunkaz.

Euri ttanken bustia amodiozko xuxurlarik ederrena zen orduan.

Geure golkoak noizbait ordea, argi-urrako samurrak inarrosi zituen. Oihana bahitzen zuten mendi lerro apalen haraindiaren magal epelean, urratsek elurra hazkatzen zutela amestu nuen, eta urratsak ur eremu zabalenera lerratzen ziren.

Itsasoaren ezti gazia kalatxoriei doan banatzen zuen anderea xuri-beltzean itxuratu nuen, askatasun nahikunde menperakaitza nigan jazartzen sentitzean. Haren eleak nereak bilakatu ziren, lerroz lerro, hostoz hosto eta gauez gau.

Menderen mendetan, buru-zokoan idortu itsas-gutiziak anderearen saihetsera bideratu ninduen. Oihartzun eskaseko solas antzuek mintzamena trabatzen zidaten, eta andereari *maite haut* xoila ezin niron ahapeka.

Lau herroketako autobideek urratu Deep North honen bihotz malgoa punpeka ari duk oraino, eta punpe bakoitzak mina eragiten dik hemengo jende ixilduen papo biluzietan. Baina abiatu nindukan, xendra lohizuen buztin urak mirail nitialarik, hire kemena, hire oldarra, hire iraun nahia bilatzeko xedearekin, salgarritasuna segurtatzearren ongi apailatu gure kulturako ‘gauzetan’ barna. Errepikatzen diat beti, latza dela bakardade amankomunaren zamaren eramaitea.

Aurkituko haudan arte ibiliko nauk hargatik.

Argi leinururantz abiatu ginen, begi izkina lehorretarik hegaldatzen ziren malkoak idortuz. Alabaina, hainbeste denbora bazen ez zuela ekiak gure soina gozatu. Oihanaren hegiraino bideratzean, apalik zizelkatu hitzak ahots ahulez marmarikatzen genituen, munduaren lotsa zihikatuz eta goizetako agur gogorregiak baztertzen saiatuz.

Hautsaren gurutzea kopetan marrazkiturik generaman eta barur-urteetarik gosaio ateratzen ginen, libertatez ezin aseak. Sekula higatuko ez zen besta-apaindura baten gisa janzten genuen herioaren kontzientzia. Gaztaroko balentrietarik urrun, xume-xumea oroitza xorta-xortaka zaurien herrokatzen hasi zen.

Gehienetan, maitatzen zuenak ez zekien maitatua izaitea zer zen.

Ni Naiz, Hi Haiz, Hura Da, Gu Gara, Zu Zara, Zuek Zarete, Haiek Dira: zenbat denbora beharko genuen adiztegiaren osoki eta libreki erabiltzen trebatzeko? Zenbat urte kalaka xugunen norantzaren finkatzen ausartzeko? Zenbat mende parean geneukan emazteari bihotzeko amodioa zor geniola aitortzeko?

Halatan, mendekuarekin, gorrotoarekin, botere-lehiarekin eta ahalge barneratuarekin jostatzen baizik ez ziguten irakatsi. Lehen hitzetan berean jazar eta negarroi ginen ttipitik galtzaile iragarriak ginenok. Historiaren ahanztokietan abandonatuak, estatistiken hondarkinak, bonba bat edo beste zartatzen zenean deabrutuak, saltzapenak segurtatzeko folklorizatuak, ikertuak eta aldi

berean madarikatuak.

Mukua koteran zerioten haur hotzek Je Suis traukatzean, Je Suicide kulturala obratzen zuten aldiro.

Ama! Nola da Ni Naiz?

Euriak hegatzak laztantzen zituen udaberriko
arratsetan, supazter xokoan
kantatzen zigun amak:
maitia nun xira, nik etxitut ikusten, ez berririk
jakiten...
eta otsaileko ostiral goiz hartan, haize
haserretuak gela etsituari min-aire
berdina luzatzen bide zion.
Haraitzinetik iragarri bezala
azkenean, Barbari Bau Bau, ixilka
hurbildu zen, amodioaren iturria
agortuz.
Amama ez zauku hilen araiz
haurrak galdatzean, ikara hotzak kateztatzen
ninduen, itzali-bezperako loeria
astunean zegoena nintzenaren zatia
zelako.
Oroitzaren puska ehortzi genuen, xuxurlatuz
urrikal zakizkigu.
Lurra lurraren hazkurri. Herriaren gutasuna
purruskatu zen orduan.

Herioaren kontzientzia mila lorez estaltzen genuen engoitik, gure aldiaren zain. Maitasunarena nola, heriotzaren balaka bekaizki norberarena baino ez.

Beldurrak eragin neure amets hatsanga zureari uztartu zenean, azken hatsa eman zuen bizitza tematsuak. *Ni Naiz* herabea ahoskatzen saiatu bezain laster, *Ni Nintzen* haren oihartzunak oinazetan zaplastatu ninduen. Elea bera doluminetan sortu zen:

intzuten gitxia ama?

Eta erizainak erran zuen:

ez gitizü entzüten...

Bapatean, lainoek tapatu zerua zeharkatu zuten kurloek. Oroimen bustiaren suaren itxinduak kitzikatuz hatsa, hatsa, hatsa hegaldaka abiatu zen.

Ur-bazterrak gogoratzen nituen, igitaien zifrizafra zaluen menean plegatu ogiezpalak, errautsezko izerdiak, salda beroak, ardo-berri karatsak, gaztainak zartaka, meza-bideak, jauzteiak, erasiak, ongietorriak, orokorki bizitzaren bihurrikeria

guzien onarpen samurrak.

Oroitza hain zuzen, *Ni Gu Naiz* molde bitxian harilkatzen hasi zen. Gu gabe deus ez naiz, erantsi zuten negarra ukatzen zidaten begi harrituek. Deep North honetan jagoitik memoria zatekeen gidari xoil.

Herioaren lasaitasunak aurpegiak leuntzean,
betikotasunean bermatzen ginen
harkaitzak ginen. Munduaren
kontzientzia saihestuak. Ezko-argi
dudakorraren xixtan altxatu
esperantz-aldaxkak. Otoitzaren
bihotzean kokatu iraun nahiaren
ikurrak. Historiatik kanpo ibiltzera
behartzen gintuztenak. Amodiorik
merezi ez genuenak.
Ohe debekatuak nola okupa?
Goiztiri zapalduetan arrotz egiten gintuen
gazteluko harresiak begiztatzean,
irabazi arte
errepikatzen genuen, zintzurrak
betiereko zoriona hil honi eman otoi jauna
ahaidearen labankadaz zauriturik.
Magnificat.

Geroztik airearen eta mendi-lerro hurbilen zilar-urdinak harrotzen gaitu argizirrintan, eta gure molde ez agian perfeitean, herri honen maitatzen, sustengatzen, laguntzen, mintzatzen hasi gara: parte batez bederen, amodioa heziketa bortitza eta hurria da.

Inguratzen gaituztenen artean urturik bezala gabiltza: solas eztiak europa kafetegian, grinak, arrangurak, pozak, histurak, jasanak, eta zenbaiten begietan pizten susmatzen diren bakardade ximixtak irakurtzen, nola edo hala, ahalezko eredu bakarraren baheetarik ttanttaka hil ala biziko harremanen itsasora orduero ixurtzen.

Geroztik sahuka-lili zuriz usaindu xendretarik banabil oraino, zuzen ala oker egiten ari ote naizen galdezka gauak airean iragan ondoan. Biharamun herbailak zurbail eta urduri kausitzen nauelarik, bideari lotzen natzaio, urratsez urrats, hidoi eta ihiztoka lehorretan barna, galderen eta gabetasunaren mugak baino urrunago, izpiritua likitsaz hustu artino, eta zelai salbatu horretan elkartasuna aurkitzen dut odoletan zintzilik, zatikaturik, negurik hotzenetan bakoitzak mantak eta (a)mantak bekaizki bereganatzen dituenean bezala.

Biga-bostetan ordea, kidearen soakoan herio-hurranaren izua irakurtzen dudalarik, badakit elkartasunaren oinarria haizeak eta euri zaparradek inarrosi hilerrietan finkatzen dela.

Txoriak iratzartzen diren tenorean jeikitzen gara
egunero, herioak baketu
begitartearen iduripenak gatibaturik.
Noizetik noizera Gu zati haren
ausentziak durduzarazten gaitu.
Hausten. Husten.
Hargatik, lurrean ireki ildo zalantzakorretan,
oihanean aterbetzen direnen
ametsak marrazkitzen ditugu: iraun-
muga arrunta baino haratago
eraman gaitzatela!
Hilezkorra baldin banaiz zergatik ez zaitut
maitatuko, laztanduko, hartuko,
utziko? Zergatik ez naiz biziko?
Nerea zurea da. Zurea gurea.
Ondarerik eta oinordekorik ez
daukagu.
Herioaren pairamenaren baheetan barna
bestelakotzen gara, eta
bestelakotasuna orainean
bermarazten dugu: nor garen ahapez

bederen erraiteko lotsak ez gaitu trabatzen.

Hautsak hauts. Kopetan gurutzea. Esku-ahurrean urrikia. Ahizparenganako amodioa. Deep Northern Way.

Anartean idazten darrait, debaldeko kronika izan litekeen poesia honen lantzen, mozten, zizelkatzen, osatzen, ele arruntez betetzen: sekula jakin duta besterik egiten? Bizkitartean, karrikako autoak ziztu bizian dabiltzala, haur garrasiak hautemaiten ditut eta segidan ama nardatuaren kexuzko orroak. Nereak ez diren hitzekilako eresi baten oihartzunak golkoa udalatzen dit bapatean:

Nos dentes traio un ar de precipicio,
detras de cada esquina un eco bate
aereamente combinado co meu paso
e as palabras.

Ustegabetarik leizearen hezeak harrapatzen nau. Badakit maite zaitudala.

Lau herroketako autobideek urratu diate Deep North honen bihotz uhargia, eta urrakotik buztin urak ixuri dituk, botere eta jabe lehiak oro justizia nahiaz apainduz. Azken hatserainoko denborak libre izaiten ikasten eta irakasten higatuko ditiagu, bakardadearen zama larrutzailearen eramaitea zeinen latza den ahanzten saiatuz.

Aurkituko haudan arte ibiliko nauk hargatik.

GAUEKO URRATSAK

Elur utziz gaueko
urratsen aztarna,
banoa ni Mauleko
karriketan barna.

airearen hotzean
hatsanga nabila,
haizea bihotzean
maitearen bila.

itzal-bideko saila
oinazetan darrait:
arrabazka apaila,
izua joan zait!

desiraren lumak
zuregana heltzen:
minaren marrumak
dirade ubeltzen.

izotza ezpainetan
nago zure maldan
dardarka, zainetan
amodioz kaldan!

ITSASOAREN BIHOTZERAINO

I

Itsasoa laño dago
baionako barraraino
nik zu zaitut maiteago
ilargiak gaua baino

barda arratsean doluaren argian kartzelaren
leihorra
heriotzaren aitzur bekaitzak setiatu zuen betiko
eta marinela eta marinela urruneko munduez
urruneko munduez oraino ametsetan.
barda arratsean marinelaren bihotza arta eskasez
itsasontzi krudelak bahitu zuen burdinaren bahian
eta marinelaren arima urmaeletarik iratzarri zen
oihuka
heriotza gaindituko zuen argi-urrakoari deika
— hego haize maitekorra nondik buhatzen dun
urruneko munduez oraino ametsetan?

barda arratsean ekainaren bezperan kostalde
hotzean
malkoen haguna begietarik dilindan uhainak

dudakor
eta marinela eta marinela gau-minaren haiduru
bihotzaren itsaso ebakiaz ametsetan.
barda arratsean mendekuaren zama behere-
lainoetan
esku ahurra tinkirik eta soakoa zorrotz
itsasoaren bihotza
eta marinelarena biak
iraun nahiaz beharraz premiaz kantatzen.

izar xuriz mila dago
iparretik hegoraino
nik zu zaitut maiteago
ilargiak gaua baino

II

Ixil-ixilik dago kaia bazterrean
untzi xuri polita uraren gainean
zergatik zergatik

engoitik badakizu adiskidantza zaharrek ez dutela
gaurko ekaitzetan bermatzeko indarrik kemenik
gogorik
exilioaren sareak hedatzen direla inguru zaurituan
harrapakari gosetuen gisa.
jadanik arrotza zarela hazi zaituen lurrekoendako
zorion urratsa engoitik bilatzen duzula baliogabeko
eguneroko gauzetan ekintzetan hatzetan
autobideek itsasorantz zilatzen dituzten ordokietan
eta
urtats goizetan alegeratzen diren begitarteetan
— tzai Maiana burrat baten edaterat...
engoitik badakizu amodioa hitz larrutuz mintzo dela
herenegun higatuaren dorpetik urrun bermatzeko
ihardokitzeko eta agian oldartzeko.

pasatzen nintzanean zure leiho petik

nigarra heldu zitzaitan begi bietarik
zergatik zergatik

seietako argitasun zurbailean ezki usainez apaindu
plazatik
niganatzen da iturri umilaren xuxurla eztia
noizean behin airearen uhargia auto herots batek
ustegabean hausten du eta bakardadea
atsegin xoil bihurtzen zait
irratian lehen berrisaila entzutean
iturriaren basamortua mila izarrez janzten da eta
ez naiz bakarrik sentitzen
seietan jeikitzen direnen elkargoan itsas-ments
baizik...

zeruan izarra dago itsaso aldetik
zergatik zergatik nigar egin?

III

Kresala azalean
haizea aurpegian
noizean behin gorrotoa diozu
baina zure barnean maite duzu
boga boga

arbelezko hegatzen lurreko burdin-bideek ez
gaituzte gehiago
ur sakonen ahantz-tokiraino eramango
altzairuaren ordez gaz-a sartu baitigute
horrela da bizitza
arratsalde zilarretan ordea amesten zaitut ibiltari
hurri
eskailera xumeak tormentatzen dituzten uhainen
tenorean
amoros
eta itsasoari begira zauden ordu bekanetan zurekin
hitz egin gogoz nabil
horrela da bizitza
itsas-gosez gaude: urdinak gure hasperen akituak
irensten ditu herria eraikitzen eztabaidatzen

dugunero
— zer nahi gisaz etsitzerik ez dago!
kez eta amodioz izerdi diren ostatuetan edo
banan-banan, bede-bederazka gabiltzalarik
karrika sardeskatuetan zehar
horrela da bizitza
hargatik ez dut itsasturien agirienganako fedea
galtzen
segur bainaiz itsas gain zabalean ekia gorrituko
denean
zure ondoan loak hartzeko ausartuko naizela
jadanik behar zaitut ur sakonen ahantz-toki goxo.

egun bat
eta beste bat eta beste bat
itsasoa ta zerua ikusten
boga boga
horrela da bizitza

IV

Lo egizu egizu lo
deskantsuan bihar artio
nik zu zaitut maiteago
gau beltzean loa baino

eremu debekatuen lurreko haurra lo egizu egizu lo
bihar oraino iparretik hegorainoko dantza amoltsuan
gaztelu-gaineko ikurrina balantzatuko baita
hormatze krudelen lotsarik gabe
hitza ebasten ez diguteno biziko baikara
eta biziko zeru-itsasoen ortzaizeak miresteko
libertaterik handiena dastatuz
ez ikara haurra egizu lo lo egizu
mendeen barbariak ez gaitu biluziko
hitzaren distiraz edertuko zaizkigu ezpainak
ordea
eta
aditz trinkoaz kateak hautsiko ditugu
loaren ondoko biharamun urosetan.
ordea
eta

izar xuriz mila dago
iparretik hegoraino
nik zu zaitut
maiteago
ilargiak gaua baino

Gizon zuriarengan nehola ere fidatzerik
ez dela erraiten zien apatxeburu akituak
hil bezpera eurizu hartan
neke-neketan hazi zituen
bere zazpi haur bilduer.
zazpi haur horietarik gehiena,
exterminazio garaia bertan delarik,
amaren erranez
oroitzen da:
gizon zuriaren ele, irri, ekintza-xede
eta keinu bakoitzak
suntsipena iragartzen eta arrunt obratzen du.
baina bidaia ez da oraino burutu.